

Donostiako hotel bat gelditu nahi dute okupazioaren bidez



Ez dugu berria turismoaren inguruko eztabaida. Bai ordea, Donostiako Alde Zaharrean herritar batzuek hotel baten aurka abiatu duten borroka: eraikineko etxebizitza bat okupatu eta bertan erresistentzia planteatu dute. “Alde Zaharra gune saturatua da, baita Udalaren arabera ere, eta ezkutuan oraindik hotel gehiago egin nahi dituzte?”, diote haserre. Prentsaurrean bizilagunei borrokarekin bat egiteko eskatu diete, nabarmenduz lanak ez direla hasi eta Udalak oraindik ez duela azken baimena sinatu.



Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaiz

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Lau izarreko beste hotel bat egin nahi dute Donostian, Alde Zaharrean bihurtzean oraingoan: Santa Maria elizari begira, Abuztuaren 31 eta Kale Nagusiak bat egiten duten erpinean, sei solairuko eraikinean. Bi tabernaren artean gertatzen den ate txikitik sartzen da. Ez da zaila imajinatzea behinola, bertako familiak ibiltzen zirela gora eta behera egurrezko eskailera zahar baina dotoreetan. Egun, ez da ia inor bizi, eta lehen solairuetan eraikina kudeatzen duen enpresak dituen beste negozio batzuetako langileak daude maizter. Hotel proiektuaren aurka borrokatzeko bosgarren solairuan okupatu duten etxebizitzan izan da ARGIA, baita bertako kideekin solastu ere, beren anonimotasuna gordetzeko baldintzarekin.

Argi eta Josebak hartu gaituzte –izen faltsuak dira– eta ongi prestatuta dakarte esan nahi dutena. “Gure okupazioarekin eta espero daitekeen erresistentziarekin, azaleratu nahi dugu zer nolako bortxa dagoen askotan turismoaren atzean”, diote hasieratik. Etxeko asanbladan onartutako oinarrien gainean, maila pertsonalean aritu direla azaldu dute.

Ekainaren bigarren astean okupatu zuten. Batzuk lehendik okupazioan ibi-

litakoak dira. 110 metro koadroko etxea oso utzita zegoela oroitu dute, eta leiho onak izan arren, hauts asko zegoela. Hutsik gutxienez hiru urte zeramatzala kalkulatu dute, baina adierazgarria da gela batean 1998ko egutegia topatu zutela paretan. Lau lagun daude bertan bizitzen, babes sare handiagoarekin. Pareta zuriak apaintzeko, marko beltzetan jarritako argazkiak aurki daitezke etxean barrena, zuri-beltzean. Gehienak manifestazio eta mobilizazioen argazki ikonikoak, baita kartelen bat edo beste ere. Bosgarren pisua izaki, leihoetatik begiratu eta Santa Maria elizaren fatxadetan geziek jotako Sebastian hilzoriaren figura ikus daiteke aurrez aurre. “Bazekiten San Sebastian ikono gaya dela?”, diosku irribarrez Josebak.

“Nik uste estigma bat apurtu dugula erdigunean txukun dagoen etxebizitza bat okupatuz, bestela, ematen baitu okupatzekotan kanpoan, urruti eta oso egoera txarrean dagoen zerbitzu izan behar duela; egonkortasuna eta erosotasuna ez direla guretzat”, hasi da Joseba.

Sei solairuko hotela egin asmoz, urteetan pertsona gutxi batzuk bloke osoaren jabe egiten joan direla nabarmendu dute. “Legeak betez edo legez kanpo, familiak bota dituzte pixkana beren etxeetatik, eta beraz, higiezin *mobbing*-a errealitatea izan da hemen”. Azpiko tabernen praktikek ere eragina izan dutela diote, auzo elkarteak berak ere salatu izan duenez. 2013an sute bat ere izan zen azpiko tabernetako batean, eta Udalak aurkitu zuen bi tabernak elkarrekin komunikatuta zeudela baime-nik gabe.

“Herri mugimenduetako kideak”. Hala definitzen dute beren burua. “Auzo honen eta Donostiarekin konpromiso bat dugun jendea gara, aurretik ere bagenuen eta orain are eta gehiago. Proiektu hau horixe bera da, auzotik bizilagunak botatzen eta turistei bidertutako hotelak egiten ari direla salatze-ko aukera”. Lanak ez dira hasi. Udalak ez duela oraindik azken baimena sinatu diote eta hor presio egin nahi dute.

Jabetzak esku gutxitan metatzen

Eraikina egun Blanca Zaragueta zinema zuzendariarena eta Consuelo Zaragueta enpresariarena da, Vicente Zaragueta zenaren alabak biak. Azken hori beste gauza batzuen artean, *El Diario Vasco*ko

presidente-orde, Aquariumeko presidentea eta Espainiako errege ohiaren lagun izan zen, Gipuzkoako fortuna handietako bat. Jabeak ez dira bertan bizi.

Jabetzan Zaragueta ahizpena izan arren, Asier Arriola Arriola izeneko enpresari batek kudeatzen du eraikina, Nahikida SL izeneko enpresa baten bidez. Arriolak hainbat negozio ditu Donostian, denak ostalaritza eta turismoaren esparrukoak. “Eraikinaren behealdean bi taberna ditu: Atari eta Sirimiri; Parranda izeneko hirugarren bat, Narrika kalean; Alde Zaharrean bi pentsio kudeatzen ditu, Basque Tours bidai agentzia berea da, Gu diskoteka kudeatzen du, Janondo jatetxea eta Urban Youth Hostel enpresa berea da. Hori, guk dakigula. Aberastasun banaketa murrizten doa, jabeak gutxitzen ari direlako eta geroz eta botere gehiago dutelako”, salatzen dute.

“Turismoarekin denok irabazten dugu esaten digute, baina denok ez dugu irabazten. Batzuek asko irabazten dute besteok bizirauten dugun bitartean, klase borroka berriz ere. Eta orain hotel berri bat egin nahi du, eta eraikin honetan ezingo da sekula gehiago Alde Zaharreko auzokiderik bizi, eta prezioak igotzen jarrai dezaten bultzako du”, dio serio Argi.

Donostiako Parte Zaharra, saturatuta

Donostiaren turistifikazioak eta honen aurkako protestek nazioartean ere arreta deitu badute, garrantzitsua da kokatzea, balizko hotel hau auzorik saturatuenean egin nahi dutela. Irakurlea kokatzeko Parte Zaharrean Bizi elkarte-ko kide Xabier Arberasek orain bi aste idatzi zuen *Donostiako Parte Zaharren kasua edo beste aldera begiratzeko antzea* artikuluan, instituzioen jarrera gogor kritikatu ostean, bizi duten egoeraren datu batzuk eman zituen.

“6.000 lagun bizi gara Parte Zaharrean. 700dik gora merkataritza-lokal daude zabalik, eta 210 ostalaritza-establezimendu (29 biztanleko bat); hiri-ko gainerako auzoen aldean, hiru bider merkataritza gehiago eta sei bider ostalaritza-establezimendu gehiago. Lokal guztien %50 daude turismora zuzenduak. Hamaika kaletan daude bilduak ostalaritza-establezimenduen %65; 17 gastronomia-elkarte, eta 280 apartamentu turistiko dago (horietatik, %84 legez kanpokoak dira); hiru hotel (bat



eraikitzen ari dira) eta 62 pentsio. Eta 1.600dik gora ohe turistentzat”.

Gaiak orain gutxi hartu duen arren dimentsio mediatikoa, auzo honetako bizilagunek urteak daramatzate kezka mahai gainean jarritz. Geroztik eta turistifikatuagoa den gunean ez daukatela kultur etxerik edo kiroldegirik salatzen dute, Orixe ikastolaren leku falta barne, zerbitzu publiko batzuk aipatzearen. Ez dago etxebizitza publikoko politika aktiborik eta askoren ustez auzoaren identitatearen, historiaren, kulturaren eta, batez ere, euskararen egoera “dramatikoa” da, artikulugileak azaltzen duenez. “Bi urteotan Udalak beste aldera begiratu du, 240 legez kanpoko kasu salatu badira ere. Horietatik, erantzunik gabe jarraitzen du % 90ak baino gehiagok”, dio.

Auzokide asko haserre dago gaia mahai gainean jartzean agintari eta

» “Turismoarekin denok irabazten dugula diote, baina ez dugu denok irabazten; batzuek asko irabazten dute”

» Alde Zaharreko auzokide asko haserre dago turismoaren gaia mahai gainean jartzean agintariek eta hauen gertuko hedabideek emandako trataera sinplistarekin

hauen gertuko hedabideek emandako trataerarekin. Arberasek honela amaitu zuen idatzi zorrotza: “Bi urte igarota, Parte Zaharrean okerrago bizitzen dela egiaztatu genezake. Udalak espezialista egin da beste aldera begiratzeko, eta trebetasun osoa eskuratu du antze, argi dago, guztiz arduragabe horretan”.

“Nora garamatzate?”

Argi eta Joseba ere oso kritikoak dira egoerarekin. “Ez dakit kontziente garen herritarrok hiria hartzen ari den norabideaz, azken hamar urteetan jasan duen eta oraindik jasaten ari den eraldaketaz. Dena aldatzen ari da”. Udan leheratu den eztabaida “oso mediatizatua eta sakontasun handirik gabekoa” izan dela uste dute hauek ere. Donostiako Udalak proposamen berriak egin dituen arren, bere eremuan sakontzen jarraitu duela ikusten dute. Horri aurre egiten eta tu-

Donostiako lau lagunek hotela egin nahi duten eraikineko etxebizitza hau okupatu zuten ekainean, bosgarren solairuan. Alde Zaharra turismoarekin saturatuta egon arren, Udala hotel berri baten eraikuntza onartzeaz dela salatu nahi dute. Hotelaren aurkako borroka gai honekin kezkatuta dauden herritarrek mobilizatzeko baliagarri izatea nahi dute.



rismo ereduari buruzko posizioak “biluzten” saiatu nahi dute.

“Periferiako auzo batetik erdiguneko beste batera, lau urteko bizi esperantza aldea dago, eta beste gauza askoren artean, uste dugu turismoak klase gatazka areagotzen duela”, dio Josebak.

Turismoa kapitalismoaren “barne esfera” gisa definitzen du Argik, “kokagunea du hiria edo herritarren bizitokia, eta bizitokia aldatuz gero, herritarren bizitza aldatzen da. Eraldaketa hori bizilagunen kalterako izaten ari da nabarmen”.

Joseba ildo beretik doa. “Kontsumitzen dira hiriak, bizimoduak eta pertsonak, dena azalekotu egiten da, dena da *typical*, eta dena txikitzen doa: auzoak, hiriak, komunitateak eta planeta”.

Alde Zaharrean etxe hutsak badaude eta auzoko ehun sozialean parte hartzea joateko dei egiten diote jendeari. “Indibidualismoaren aurrean, bultza dezagun bizimodu kolektiboa eta bizitza ingurukoekin konpartitzea”, dio Argik zer defendatzen duten ere esateari garrantzia emanez. “Okupatzeak ematen du elkar laguntzea praktikan jartzeko modu potentea, eta gainera, min egiten die”, dio irribarrez Josebak elkarriketa amaitze bidean.

Ez daudela auzoan taberna bat duenaren edo turismo sektorean lan prekarioan ari denaren aurka argi utzi nahi dute. “Gu auzoak txikitzen eta sektorean negozio ugari dituzten enpresarien aurka gaude. Ahaztu gabe turismoak mila aurpegi dituela. Gure ekintzarekin hotela eta enpresari handiak seinatu nahi ditugu”.

Dikotomia argi daukate: “Arriola edo auzokideok. Beraiek hotelak, guk etxebizitza komunitarioak”.

Kanpai hotsak entzun dira. ■

